**» ZIZURKILGO III. AUTOEN SLALOMA ETZI**
22 parte-hartzaile ariko dira; horien artean, Ion Maritxalar tolosarra eta Amets Mendizabal anoetarra › 4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info
Ostirala
2009-09-18
VII.URTEA 1.779.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA
WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E. MAIZ

**AIMAR AGIRRESAROBE ETA EGOITZ ZALAKAIN** TRIATLETAK

# «Hawaiko Ironmanean esperientzia bizitu behar da»

**TOLOSA** Kraft Atletiko San Sebastian taldean ari dira biak; Hawaiko Ironmanean lehiatuko da Agirresarobe; Zalakain duela bi urte izan zen 5



Komertzio foroaren ordezkariak, atzo, ekimena aurkezten. I.T.

# Jarduerak antolatu dituzte, larunbat arratsaldeetan jendea erakartzeko

**TOLOSA** Komertzio foroaren ekimena da; bihar gaztetxoentzat antzerki musikala izangoda 3

## Maratoi Erdia eta Mendi Bizikleta Martxa antolatu dituzte etzirako

**LEITZA** Leitzatik Lekunberrira bitarteko ibilbidea burutuko dute, bi probetan 6

## Bisitarien kopurua mantendu egin da eskualdean, uda honetan

**TOLOSALDEA** Balantze baikorra egin dute Tolosaldea Tourren 2

## Igandera arte zabalik egongo da XI. Garagardo Festa, Zerkausian

**TOLOSA** 27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da, eta alemaniar ohiko jakiak 2





# Krisi garaian egon arren bisitarien kopurua mantendu da uda honetan

**Ekonomia** » Tolosaldea Tourrek azken hilabeteetan turismoaren inguruan bildutako datuak aurkeztu ditu.

ERREDAKZIOA

Udan turismo bulegotik emandako zerbitzuaren inguruko datuak bildu dituzte aurten ere Tolosaldea Tourrekoek. Hauen arabera, 3.700 lagunetik gora igaro dira Tolosako turismo bulegotik. Honenbestez, mantendu egin da bisitarien kopurua. Uztailean ohikoa baino jende gutxiago etorri da, baina abuztuan gehiago. Hori dela eta, gustura daude Tolosaldea Garatzen eta Tolosaldea Tourrekoak, eta balantze positiboa egiten dute.

Krisi ekonomikoaren zurrunbiloak eragin apur bat ere izan du eskualdeko turismoan. Landetxe, nekazal turismo, hotel eta pentsioetako okupazio datuak aurreko urteetakoen antzekoak baldin badira ere, desberdintasunak daude. Esaterako, batzuetan gosari zerbitzua ez dute erabili eta ezta gainontzeko otorduetakoa ere, merkeagoa izan dadin egonaldia. Bestalde, azken orduko erreserben kopurua igo egin da uda honetan. Honez gain, bezero askok, sukalde zerbitzua ere eskatu dutela nabarmendu zuten. Batez besteko okupazioa %55ekoa izan da.

Duela hilabete gutxi bi lotoki berri ireki zituzten. Alde batetik, Bidegoiango Iriarte Jauregia eta bestetik, Berastegiko nekazal turismoa. Biek ere harrera oso ona jaso dute, eta beteta egon dira uda guztian zehar, eta bezero berriak ekartzeko balio izan dute.



Azo eman zuten udako datuen berri, Olatz Ilarregi eta Jose Luis Urdangarinek. E. EZEIZA

Bisitarien jatorriari dagokionean, Espainiatik datozenen artean egon da aldaketa nabarmenena, hauen kopurua igo egin baita. Dena den, Tolosaldera etorri diren turisten kopurua nahiko aldakorra izan da hilabete bakoitza kontuan hartuz gero. Oro har, atzerriko turisten kopuruak gora egin du nabarmen, %35 igo baita. 572 lagun etortzetik 774ra igaro baita. Frantsesak dira hona etortzeko joera handiena dutenak.

Bertako, Euskal Herriko bisitari asko jasotzen ditu udan Tolosak, eta batik bat, Gipuzkoakoak. Olatz Illarregi, Tolosaldea Tourreko ordezkariak azaldutakoaren arabera, egun baterako bakarrik etortzen dira gehienetan bisitariak Tolosara. Horren arrazoietako bat, «lotokien eskaintza txikia» dela deritzote Tolosaldea Garatzenekoek.

Tolosaldea Tourrek, bere zerbitzuen artean, bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du. Besteak beste, Gorrotxategi museora, Alde Zaharretik barrena, Larraulgo museora... Hauetan, jende gehienak lehendabizikoa aukeratu du. Bestalde, Aranburu jauregia ere irekita egon da uztailean eta abuztuan, eta jende ugari hurbildu da hona ere.

### Larraitzen, informazio puntua

Aurten, Goierri eta Tolosaldeko turismoa bultzatzeko asmoz, hitzarmen bat sinatu zuten. Honen baitan, Larraitzen informazio gune bat jarri zuten uztailaren 23an. Toki hau aukeratu zuten, Aralarko natur parkearen sarbidea delako eta bi eskualdeak bertan lotzen direlako. Informazio puntua hilabetez egon da bertan, eta 1.089 lagun igaro dira hortik. Hori dela eta, ekimen arrakastatsutzat jo dute hau, eta aurrera begira ere egitasmoarekin jarraitzeko aukera aztertzen ari dira.

Bildutako datuen arabera, bisitari gehienak Euskal Herrikoak izan dira, 707 hain zuzen ere, baina aipatzekoa da ere atzerritarren eta Espainiakoen bisita kopurua. Jende ugari hurbildu baita inguru horietatik, ohikoa den bezala, bereziki, Herrialde Katalanetatik.





# Hainbesteren artean, zein hartu?

TOLOSA ● Eskualdeko garagardozale guztien egarriak asetzeko asmoz atzo ireki zituen ateak Tolosako XI. Garagardo Azokak Zerkausian. 18:00etan zabaldu zuten eta pixkanaka, jendea hurbiltzen hasi zen atzo iluntzean. Aurten gainera, inoiz baino aukera handiagoa izango da, 27 garagardoren artean aukeratu ahal izango baita. Herriko hainbat kirol talderi laguntzeko asmoz antolatzen da urtero jaialdi hau, eta azokaren baitan, hainbat ekitaldi izaten dira asteburuan zehar. Igande gauera arte izango da pitxarrak betetzeko aukera. ESTI EZEIZA

## Laburrak

### Wii Sports Resort ezagutzeko aukera

TOLOSA ● Wii-aren iraultza Tolosara dator. Izan ere, gaurtik igandera, Wii Sports Resort aurrez-aurre ezagutzeko, gune bat jarriko da San Frantzisko ibiltokian. Bideojoko honek erabiltzailearen mugimenduak errepikatzen ditu.

### Hiru pilota partida bihar, Behar Zanaren festan

VILLABONA ● Bihar, Behar-Zana kirol elkarteak egoitza berria inauguratuko du, eta ekitaldien artean, 11:00etan hasita hiru pilota partida jokatuko dira Behar-Zana pilotalekuan bertan. Lehendabizikoan, alebinetan, Tormo-Aizpirua bikotea eta Arrate-Lizartza ariko dira. Bigarrenean, hau da, infantiletan, Irisarri-Erasun, Labaka-Maizen aurka. Azkenik, nagusietan, Lizaso-Iraeta bikoteak Aranburu-Errekaren kontra jokatuko du.

### Aerobik ikastaroa antolatu nahi dute Olaederran

VILLABONA ● Olaederra kiroldegiak aerobik ikastaro bat antolatu nahi du, goizetan. Astean hiru egunetan izango lirateke eskolak. Informazio gehiago kiroldegian edota 943 69 43 22 telefono zenbakira deituta lortu daiteke.

## Telefonoak

**Larrialdiak.** ((112))

**OSASUNA.**
**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 943 65 23 39
**Asteasu.** Medikua: 943 692423
**Baliarrain.** Medikua: 943 889003
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 943 683361
**Bidegoian.** Medikua: 943 681134
**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411
**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329
**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800
**Orendain.** Medikua: 943 655595
**Orexa.** Medikua: 943 682228
**Tolosa.**
**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111
**San Esteban:** 943 006800
**Gernikako arbola:** 943 006900
**Amarozko dispen.:** 943 672637
**Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
**DYA:** 943 672536
**Gurutze Gorria:** 943 674888
**Villabona.** Anbulat.: 943 006970
**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930
**GARRAIOAK.**
**Renfe:** 902 24 02 02
**Tolosaldea bus:** 943 650621
**Taxia:** 943 670420
**Taxia (Leitza):** 608 873016
**BESTERIK.**
**Ertzaintza:** 943 538820
**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858
**Tolargi:** 943 650016
**Tolosa gasa:** 943 675320

## G Gutunak

### Voith, alokairu soziala

EB-Aralar udal taldeak argi eta garbi dauka erakunde publikoek herritarrek etxebizitza duina eskura dezaten erraztu eta bermatu behar duela eta, gainera, horretarako baliabideak jarri egin behar dituela. Halaber, oso argi dugu erakunde publikoen aldetik modu bateko edo besteko babesa duten etxebizitzak ezin direla salmentarako izan eta alokairu sozialeko erregimena aplikatu behar zaiela, hots, norberaren errentaren araberako alokairua. Izan ere, alokairua baliabide publikoak kudeatzeko modu zuzenagoa eta orekatuagoa da eta, aldi berean, unean uneko egoera pertsonalera moldatzeko gaitasuna ematen du.

Voith-eko promozioan tasatutako 30 bat etxebizitza okupatu gabe gelditu dira bi zozketa egin eta gero. Ez dugu sakondu nahi gertaera horren arrazoietan, baina azpimarratu nahi dugu etxebizitza tasatua irteera kamutsa dela, etxebizitza-eskatzaileen arteko askok eta askok ezin dutelako ordaindu jarritako prezioak. Egoeraren irteera ez da beste zozketa bat.

Horregatik guztiagatik, Tolosako EB-Aralar udal taldeak ez du bere egiten udal gehiengoak beste zozketa bat (hirugarrena) egiteko hartu duen erabakia. Udaletxeak, ikuspegi sozialetik asmo handiagoak izango dituen etxebizitza-politika bultzatu behar duela uste dugu. Horren ondorioz segidakoa proposatzen dugu:

1. Udalak, lurzoruaren kudeaketarako udal-enpresa publiko berriaren bidez (orain eraketa-fasean dagoena eta Tolosa Eraikitzen, SA behinbehineko izena duena), Voith-eko eraikitzaileei eros diezaiela hutsik gelditu diren etxebizitzak, katastroan duten salneurrian.

2. Etxebizitza horiekin bultzada bat eman diezaiola alokairuzko etxebizitzen udal-parkeari, zein etorkizunean beste erosketen eta sustapenen bidez handituko den.

3. Lurzoruaren kudeaketarako udal-enpresak Voith-eko etxebizitzak erosi ostean has dadila maizterrak aukeratzeko prozesua

4. Tolosako udalerrian etorkizunean sustatzen diren etxebizitza babestu guztiak alokairu sozialezkoak izan daitezela.

**Inaki Irazabalbeitia.** Aralar eta Ezker Batua Berdeak-eko Tolosako Udal taldearen izenean.

# Larunbat arratsaldeetarako jarduerak antolatu dituzte komertzioa indartzeko

**Ekonomia »** Antzerki musikala izango da bihar, 18:00etan Triangulon; herritarrak animatzen dituzte herrian geratzera.

IÑIGO TERRADILLOS



Komertzio foroaren ordezkariak atzo eginiko aurkezpenean. I.T.

Larunbat honetan hasita, animazio jarduerez gozatu ahalko da abendua bitarte Tolosako kaleetan. Tolosako komertzio foroaren ekimena da, «tolosarrak larunbat arratsaldeetan herrian gera daitezen, eta horrela komertzioa indartu dadin».

Izan ere, foroaren esanetan, «larunbat goizetan jende ugari izaten da Tolosan azokak bultzatuta, eta horrek jarraipena izan dezan arratsaldean nahiko genuke». Antolatu dituzten ekitaldiak bereziki gaztetxoei zuzendurikoak dira, eta antzerki musikala, zurezko jolas tresnak, malabarismo eta oreka tailerra, makillaje, globoflexia eta lepokoen tailerra, haur dantzaldia, animazioa, desfilea eta haurren herri kirolak eta jolasak eta magia eta umorea izango dira ardatz. Triangulo plazan, Plaza Berrian

### Askotariko jarduerak izango dira, eta batik bat, gaztetxoenei zuzendurikoak

eta San Frantzisko ibiltokian zehaztu dituzte lehendabiziko jarduerak. Hala, familiak animatu nahi dituzte animazio jarduera hauetara joatera, «azken batean, larunbat arratsaldean ere herrian geratuz, bezeroen fideltasuna lortuko baitugu».

Halaber, komertzioetako jabeak ere animatu nahi dituzte ekimen honetan parte hartzera: «gaur egun ia denda guztiak zabalik egoten dira larunbat arratsaldeetan ere, baina guk denak animatu nahi ditugu, izan ere, jendea erakarri nahi badugu eskaintza zabala eskaini behar dugu».

### Diru laguntza

Eusko Jaurlaritzaren Merkagune programak finantzatuko du jardueren %80, eta Tolosako bi komertzio elkarteek, hau da, Alde Zaharra Dendak elkarteak eta Igarondo elkarteak gainerako %20. Tolosako Udalak, bere aldetik, jarduera horiek egiteko beharrezko azpiegiturak jarriko dituela adierazi dute.

### Teknikariaren beharra

Bestalde, komertzio foroak azaldu duenez, komertzio teknikari baten beharra dute, «kudeaketa lana egin, eta gaur aurkezten ari garena bezalako kanpainak bultzatzeko, eta azken batean, komertzioa sustatzeko helburuz». Izan ere, euren dendak ixterakoan biltzen dira komertzio foroko kideak, eta orduan aritzen dira horrelakoak antolatzen, eta pertsona bat horretarako izanik lan hobea egingo luketela uste dute. Hala, 2010erako teknikaria izatea espero dutela adierazi dute.

### » EGITARAUA

**Irailak 19, bihar**
■ **Antzerki musikala.** *Atxikistan* lana izango da ikusgai, 18:00, Triangulon. Euskal Herritik Atxikistanerako bidaia izango da. Hala, gaztetxoek pistak jasoko dituzte, leku ikusgarri horretara heltzeko.

**Urriak 3, larunbata**
■ **Zurezko jolas tresnak.** *Tombs creatus.* Bi saio: 10:30etik 13:30era Plaza Berrian, eta 17:00etatik 20:00etara San Frantzisko ibiltokian. Egurrarekin eginiko 40 joko izango dituzte gaztetxoek aukeran jolasteko.

**Urriak 17, larunbata**
■ **Zirko tailerra.** Malabarismo, oreka eta abarren tailerra izango da, eta zirkoa musika eta kale antzerkia, 17:00etatik aurrera, Triangulon.

**Urriak 24, larunbata**
■ **Jakin eta jolas.** Makilaje, globoflexia, lepoko eta abarren tailerra eta haur dantzaldia izango da, 17:00etan, Triangulon.

**Azaroak 14 eta abenduak 12, larunbata**
■ **Deabru beltzak.** Ekintza ibiltaria, animazioa eta desfilea izango da. Lekua eta ordua zehaztu gabe dago oraindik. Bi saio eskainiko dituzte. Helduentzat.

**Azaroak 28, larunbata**
■ **Herri kirolak eta jolasak.** Haurrentzako herri kirol eta jolasen saioa izango da. Lekua eta ordua zehaztu gabe dago oraindik.

**Abenduak 19, larunbata**
■ **Kidam eta Marsel magoak.** Magia, umorea eta partaidetza taile dibertigarria. Lekua eta ordua zehaztu gabe dago oraindik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikazio talde batek **Kazetaritzan** edota **Euskal Filologian** lizentziatuak edo ikasleak behar ditu.
Interesatuek deitu **661 678 817** telefonora

## Iragarki laburrak

**LANA**
■ **Lan bila.** Neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Esperientzia zerbitzari gisa, nahiz beste hainbat lanetan. Autoarekin mugitzeko arazorik gabe, eskualdean. Deitu 679 63 13 93 telefono zenbakira.

**SALGAI**
■ **Granja.** Granja salgai Berrobin. 1.600 m2. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 75 33 92.

# Gidariek beraien trebezia erakutsiko dute etzi Autoen III. Slalomean

**Zizurkil** » Guztira 22 parte-hartzaile izango dira, tartean, Ion Maritxalar tolosarra eta Amets Mendizabal anoetarra.

**IMANOL GARCIA**

Zizurkilgo Autoen III. Slaloma antolatu dute etzirako. Ekitaldia aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten antolatzaile lanetan aritu den Escuderia Jaizkibeleko Aaron Robles, Marian Lazkano alkateak eta Iñigo Cuesta Autoen Gipuzkoako Federazioko lehendakariak. Leku berri baten egingo da aurtengoan proba: Ugare auzoan egin berri den bialean, trenbidearen ondoan dagoena. Proba hau ez da abiadura kontua, irabazi nahi duenak abilezia erakutsi behar du.


**Antolatzaileak probaren kartelarekin.** I. GARCIA

Guztira 22 gidarik parte hartuko dute eta Cuestak azaldu duenez, «ez bada ere oso zenbaki altua, parte-hartzaileak kalitate handikoak dira. Txapelketan parte hartzen duten gehienak daude, denak oso abilak bolantearekin». Kontuan izan behar da gidari bakoitzak egiten duen denboraz gain, zirkuituan zehar eginiko penalizazioak kontuan hartzen direla. Hala, kono bat ikutzen badu bost segundo gehitzen zaizkio denborari eta kono batetik ez bada ondo igarotzen hamar segundo gehitzen zaizkio. «Ez da kontua, beraz, zeinek egiten duen zirkuitua azkarren, baizik zeinek egiten duen ondoen», gaineratu du Cuestak.

Zirkuituaren hasiera tren geltokiaren azpian izango da eta Ugare auzoaren bukaeraino izango da. Konoz beteta egongo da bidea. Kilometro bat inguru egin beharko dute gidariek eta minutua eta 20 segundoko denbora beharko dute gutxi gorabehera bidea egiteko. Bakoitzak bi aldiz egin ahalko du zirkuitua eta denborarik onena hartuko zaio kontuan. Aurten, berritasun bezala, zailtasun handiagoak jarriko zaizkie gidariei. Konoak banaka pasatu beharrean, slaloma egiterakoan ohikoa dena, batzuetan bi kono utzi beharko dituzte atzean autoa biratu baino lehen.

**Eskualdetik bi parte-hartzaile**

Gidari gehienak bizkaitarrak izango dira. Eskualdetik bi parte-hartzaile egongo dira: Ion Maritxalar tolosarra eta Amets Mendizabal anoetarra. Faboritoei dagokionez, Iker Ercilla eta Jose Ignacio Arroita izango dira, iaz beraiek izan baitziren lehenengo biak. Auto mota bera izango dute: Peugeot 309 GTIa.

Lau maila izango dira autoei dagokionez. Lehenengo mailan 1.600 cc. baino gutxiago duten ibilgailuak lehiatzen dira. Bigarrengo mailan 1.600 cc. baino gehiagoko motorra dutenak edo tamaina horren azpitik izan arren hobetuta daudenak. Hirugarren mailan trakzioa atzeko gurpiletan dutenak sartzen dira. Laugarren mailan car cross-ak sartzen dira. Gidarien adina kontuan hartuta beste maila batean ere sariak ematen dira, hau da junior mailan, 23 urte baino gutxiago dituzten gidarientzat.

10:30ean hasiko dira entrenamenduak eta gero, 11:30ak inguruan hasiko dira txanda ofizialak. Etzi egingo duen eguraldiak zerikusi handia izango du proban, euriak zaildu egiten baitu zirkuitua gidarientzat. Villabonatik Zizurkilerako bidea moztuta egongo da goiz guztian zehar. Beraz, Zizurkiletik ateratzeko Aduna aldera jo beharko da. Antolatzaileek eskatu diete ikusleei egunean bertan antolakuntzak esandako lekuetan jartzeko. Roblesek azaldu du leku aproposena tren geltokiaren ondotik dagoen bidea dela: «Zirkuituaren parte handi bat ikus daiteke eta hiru metroko altueran zaude zirkuituaren gainetik».

# «Azalak asko sufritzen du udan»

**KARMEN LARRARTE** › Estetizista

**I. GARCIA**

Zizurkilgo Udalak antolatu duen ikastaroetako bat *Azalaren zaintza uda ondoren* da. Karmen Larrarte estetizistak emango du ikastaroa. Tolosan estetika zentroa du eta bertan hainbat zerbitzu ematen ditu. Zortzi urte inguru daramatza ikastaroak ematen Zizurkilen.

**Aurten automakillajeaz gain azalaren zaintzari buruz ariko zara ikastaroan.**

Automakillajearen osagarri gisa, uda ondorengo azalaren azterketa eta zaintza ikusiko dugu. Hau da, eguzkiaren ondoren azala bere onera nola eraman daitekeen zainketa batzuk eginez.

**Asko sufritzen du azalak udan?**

Bai, asko sufritzen du eguzkiarengatik. Azal zahar hori, keratosis hori, komeni da kentzea eta horren ondoren azala bere onera ekartzea. Bestela ez du balio ezertarako krema ematea azal zaharraren gainean, ez baitu eraginik egiten. Lehendabizi ondo kendu behar da azal zahar hori eta gero behar den tratamentua eman.

**Azala zaintzerakoan zer da garrantzitsuena?**

Kontu honetan bereizi egin behar dela uste dut. Azalaren zaintzan garbitasuna da beharrezkoena. Garbitasuna ez da xaboi bat hartu edo esnea hartu eta azala gainetik garbitzea. Hiru modu daude garbiketa egiteko: bata gainetik egiten dena; bestea esfoliazioa da, hau da, gaineko azal zaharra kentzea da; hirugarrena garbitasun sakona da, hau da, poroetatik gorputzak barruan duen zikina kanpora ateratzea. Azal batzuk egoten dira kutsatuta bezala, bizirik gabe. Horregatik eman behar zaio bizia azalari, hau da, azala prestatu gero produktuak eman ahal izateko.

**Zer landuko duzue automakillajearen atala ematerakoan?**

Gure aurpegia nolakoa den ezagutzea eta hortik aurrera aurpegiera guztiei probetxua ateratzea da asmoa. Automakillajearena pertsonalizatua egiten dugu, hau da, ikasle bakoitzaren aurpegiera kontuan hartu makillajea erabiltzerakoan. Kontua ez da zein kolore erabili, baizik nola eman makillajea zure aurpegiera alaitzeko.


I. GARCIA

## ZIZURKILGO IKASTAROAK

Ikasturtea urriko lehenengo astean hasiko da eta ekainaren erdira arte iraungo du. Matrikula epea hilaren 25era arte da eta izena 943 69 24 95 telefono zenbakian eman behar da, Zizurkilgo Aurrera Plazako Udal Bulegoetan. Izena emateko momentuan ikastaroaren ordainketa egin beharko da edo Udaleko kontu korrontean ordainketa egin izanaren ziurtagiria eraman beharko da. Izena ematekoorria betetzea derrigorrezkoa da. Ikastaroetako bajak urriaren 23a baino lehenago soilik onartuko dira eta idatziz eskatu beharko dira.

Atxulondo kultur etxean, haurrentzako ondorengo ekintzak izango dira: marrazketa, euskal dantza eta dantza modernoa. Helduentzako ekintzak: eskulanak eta pintura, patchwork, yoga eta pilates. Jubilatuentzako ekintzak: gimnastika, eskulanak eta yoga. Iriarte kultur etxean, helduentzako zuzenduta, eskulanak eta gimnastika izango da.

*Azalaren zaintza uda ondoren* ikastaro motza ere antolatu dute. Horrez gain 10 orduko informatika ikastaroak antolatu dituzte KZgunean.




**2009ko USATEGIEN ENKANTEA**
**BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)**
**Tel.: 948 510 327 - 608 928 626**
**Donostiatik 20 minututara**
**Paradetaraino sarbidea kotxez**
**Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.**

| | |
|---|---|
| 1go enkantea: irailaren 19an | Larunbata 19:00 |
| 2.enkantea: irailaren 26an | Larunbata 19:00 |

E **Elkarrizketa**

**AIMAR AGIRRESAROBE ETA EGOITZ ZALAKAIN ›** Triatletak

**Tolosa»**
Krafft Atletico San Sebastian taldean daude bi tolosarrak. Agirresarobek Hawaierako txartela eskuratu du Boltoneko Iromanean.


E. MAIZ

# «Hawaiko Ironmanera joatean esperientzia bizitu behar da»

ERREDAKZIOA

Aimar Agirresarobe (Tolosa, 1981) eta Egoitz Zalakain (Tolosa, 1980) triatletak Donostiako Krafft Atletico San Sebastian taldean daude. Denboraldi bikaina egin dute. Agirresarobe, Hawaiko Munduko Ironman txapelketarako sailkatu da eta Zalakainek uste baino denboraldi hobea egin du, urtebetetik gora lesionatuta egon ostean. Gipuzkoa, Euskal Herria eta Espainia mailan taldeka eta bakarka postu on asko lortu dituzte denboraldian zehar.

**Denboraldia bukatuta edo bukatzear zaudete. Zein da denboraldi honi dagokion balantzea?**

**Aimar Agirresarobe.** Azken finean helburua beti bera da, hobetzen joatea. Aurtengo helburua, Erresuma Batuko Ironmana egitera joan eta maila txukun bat ematea zen. Hori prestatzean, Euskal Herriko eta Gipuzkoako probak txukun atera zaizkigu eta gainera Boltonera (Erresuma Batua) joan eta Hawaira joateko txartela lortzearekin, hasieran jarritako helburu guztiak pasa ditut.

**Egoitz Zalakain.** Helburuak ez dituzu zehazten baina urtero hobeto ikusten duzu zure burua eta hobetzen zoaz. 2005ean duatloi bat irabazi nuen, inoiz espero ez nuena eta 2006. urtea oraindik hobea izan eta Hawaira joatea lortu nuen. 2007. urtea oso ona izan zen baina denboraldi amaieran belauna apurtu nuen eta ondorioz, 2008. urte osoa ezer egin gabe egon nintzen eta ez nekien berriz zerbait egin ahal izango nuen ere. Nire kasuan denboraldi honetan gutxi entrenatu dut eta frogarako izan da, hau da, berriz ere triatloia egin ahal izango nuen jakiteko. Azkenean, espero baino hobeto ibili naiz eta emaitza oso onak lortu ditut.

**Denboraldi hasieran jarritako helburuak beteta dituzue orduan.**

**E. Z.** Helburu bezala ez dugu jartzen lasterketa bat irabaztea baizik eta lasterketa horretarako prestatzea. Helburua urtetik urtera hobetzea da eta norberaren burua gainditzea.

**A. A.** Sarritan, maila ona dagoen lasterketa batean hamargarren postua egitea nahiago dut eta ez maila baxuko lasterketan hirugarren izatea.

**Zein izan da denboraldiko ibilbidea?**

**A. A.** Kanariar Uharteetan hasi ginan biok eta ondoren hilabete lehiatu gabe egon nintzen. Mallorkan ere izan gara. Nik gehiago luzatu nuen Ironmana abuztu hasieran nuelako. Euskal Herriko zirkuituko lehen lasterketan biok batera bigarren eta hirugarren postuetan iritsi ginen. Luze entrenatu dugu eta ondorioz, distantzi laburreko lasterketak ongi atera zaizkigu eta hainbat probetan podiumean egon gara. Esaterako, Gasteizen izan zen Espainiako distantzia luzeko proban, 25-29 adin tartean 3. postua lortu nuen. Espero gabe emaitza oso onak lortu ditut. Eta Boltoneko Ironmanean nire adin tartean 18. sailkatu nintzen eta Hawairako txartela eskuratu nuen.

**E. Z.** Nire urtea arraroa izan da. Oso gutxi entrenatu dut eta urtea etorri bezala eraman dut. Kanariar Uharteetara joan nintzen eta bertan ikusi nuen gai nintzela triatloiak egiteko baina entrenamendua falta zitzaidan. Maiatza arte entrenamenduak egin nituen. Guretzat, ekaina erdian Zarautzen egiten den triatloia da lasterketarik garrantzitsuena eta beldur handiz joan nintzen ez nekielako gai izango nintzen eta azkenean zazpigarren egin nuen onenen artean geratuz eta Gipuzkoako txapeldun geratu nintzen. Eta ekaina amaieran Nizako Ironmana egitera joan nintzen. Baina bizikletaren arazo baten ondorioz ez nuen nahi bezain ongi bukatu.

**Zein gomendio emango zenioke Aimarri Hawaiko probarako?**

**E. Z.** Ilusioa izaten da hara joateko. Jende guztia ilusio handiaren joaten da eta ahalik eta gehien gozatzeko esango nioke. Oso ezberdina da beste lasterketetatik eta oso zaila da lehen urtean ongi egitea, oso ezberdina da. Mundu guztian sailkatutako 1.700 triatleta daude bertan eta maila handiko jendea da. Arauak ere ezberdinak dira eta beraz, lehenengo aldia esperientzia bizitzeko da.

**Aimar, Hawaira joateko azken prestaketak egiten ariko zara.**

**A. A.** Aste honetan nahiko lasai nabil. Ironmana, urriaren 10ean da eta hemendik hara 3an abiatuko naiz. Ordu aldaketa, eguraldia, pixka bat entrenatu eta disfrutatzera. Urte osoa daramagu entrenatzen eta orain pixka bat gehiago luzatzea izan da kontua.

**Donostiako taldearekin gustura zaudete?**

**E. Z.** Ez gaude hainbeste taldean eta ez gara askotan elkartzen baina denok ia maila parekoa dugu eta ongi moldatzen gara. Taldea gara baina ez da futbol ekipo bat bezala.

**A. A.** Giro ona dugu. Gehienetan karreretan elkartzen gara eta elkartzekotan bizikletan ibiltzerakoan izaten da. Gaineratzean bakarrik entrenatzen dugu. Urte dexente daramagu elkarrekin eta oso ongi moldatzen gara.

**Egoitz, triatleta bezala zer aipatuko zenuke Aimarrengatik?**

**E. Z.** Aimarrek duen onena urtetik urtera hobetzeko gaitasuna duela. Entrenatzeko ongi betetzen duen konstantzia eta ela.

**Eta Egoitzen kasuan?**

**A. A.** Helburu bat jartzean, oso ongi prestatzen du. Motibatu egiten da eta psikologikoki ere oso ongi prestatzeko gaitasuna du.

**Noiz arte jarraitzeko asmoa duzue?**

**A. A.** Nik beti esaten dut maila hobetzeari uzten diodan momentuan beste era batera hartuko dudala triatloia.

**E. Z.** Ez dakit non dagoen muga. Banakako kirola denez, zure esku dago dena eta hobetzen jarraitzeko aukera dudan bitartean jarraituko dut. Nik ez dut konpetitzeagatik egiten, pertsonala da.

**Handia da Ironmana egitea.**

**E. Z.** Askori Ironmana egiteagatik gehiago direla iruditzen zaie baina niretzat Ironmana ongi egitea edota lasterketa motza ongi egitea berdina da. Orain nire erronka Ironmana ongi bukatzea da eta zailena hori ikastea da.

**A. A.** Lasterketa motzak gehiago egin ditzakezu eta ikasi egiten duzu nola egin. Baina Ironmanen kasuan urtean ezin dituzu asko egin. Nik, oraingoz, bi urtetan bi egin ditut eta batetik bestera ikasi egiten duzu, erritmoa eramaten edota zer eta noiz jan.



# Maratoi Erdia eta Bizikleta Martxa Plazaolatik barna

**Leitza »** Natur Bideen Europako Egunean, etzi, Leitzatik Lekunberrira bitartean bi kirol proba antolatu dituzte.

**ASIER IMAZ**

Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Kirol Mankomunitateak VII. Mendi Bizikleta Martxa eta IV. Maratoi Erdia antolatu dituzte hilaren 20an, etzi. Data jakin horretan, Natur Bideen Europako Eguna ospatuko da eta ondorioz, bi ekimenak Plazaolan barna ospatuko dira. Babesleen artean Leitzako Udala agertzen dela aipatu behar da.

Maratoi Erdia 09:30ean hasiko da Leitzako Erreka Sagardotegitik. Mendi Bizikleta Martxak berriz hiru irteera gune edukiko ditu: 10:00etan Andoainen, 11:30ean Leitzako Geltokian eta 12:30ean Lekunberriko Geltokian.

**Izena emateko aukera**

Ekimenaren baitan Plazaolatik barna bizikletaz ibili nahi dutenek, egunean bertan izena emateko aukera edukiko dute. Horretarako proba hasi baino ordubete lehenago joan beharko dira irteera puntura, orduan jarriko baitituzte izena eman ahal izateko mahaiak.

Lehen irteera puntuan, Andoainen, 15 euro ordaindu beharko dira. Bigarren puntuan, Leitzan, 9 euro eta Lekunberrin 3 euro.

Maratoi Erdiari dagokionez hilaren 17an amaitu zen apuntatzeko epea.

**Ibilbideak eta kilometroak**

Leitzako Erreka Sagardotegitik irteten diren korrikalariek 21 kilometro egin beharko dituzte helmugara iristeko. Leitzatik Mugirora joango dira lehenik eta ondoren Lekunberrin amaituko da Maratoi Erdia.

